

**Ohiko Batzar nagusia**

**2024-02-28**

## ORERETA IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEKO 2024 URTEKO OHIKO BATZAR NAGUSIAREN AKTA

2024ko otsailaren 28an, 18:30ean, hirugarren deialdian, Linoko egoitzan (Santa Klara kalea, 7) egindako bileraren akta.

Orereta Ikastola Kooperatiba Elkarteak 2024ko otsailaren 12an egin zuen Urteko Ohiko Batzar Nagusirako deialdia, entitatearen webgunearen bidez.

Kooperatiba Elkarteko lehendakari Itziar Navarro Pikabea andreak Urteko Ohiko Batzar Nagusira deitu zituen bazkideak, 17:30ean lehen deialdian, 18:00etan bigarreanean eta 18:30ean hirugarren eta azken deialdian.

### GAI-ZERRENDA

1. Batzar-akta onesteko bi bazkideren izendapena.
2. Aurreko Urteko Ohiko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren berrespena.
3. Heziketaren kudeaketari buruzko txostenaren aurkezpena.
4. Kilometroak 23 ekimenaren balorazioa.
5. Estatutuen aldaketa, hala badagokio, bikotekideari botoa eskuordetu ahal izateko (24. artikulua).
6. 2022-2023 ekitaldiko kudeaketa soziala eta urteko kontuen onarpena, hala badagokio. Emaizten aplikazioa.
7. Tarifak berrikusteko proposamena eta hala badagokio, onarpena.
8. Ikastolaren Linoko eraikineko obraren onarpena eta mailegua eskatzeko baimena, hala badagokio.
9. Egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia.
10. Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kide berrien onarpena, hala badagokio.
11. Galde-eskeak.

Itziar Navarro Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak ongiatorria egin die bertaratutako guztiei. Azaldu du batzarrean 2022-2023 ikasturtean gertatutakoaren eta hurrengo urteetako asmoen berri emango dela. Batzarra euskaraz izango da, eta bazkide bakoitzak nahi duen hizkuntza erabili ahal izango du hitza hartzean. Amaieran mokadutxo bat hartzeko aukera izango dela adierazi du.

Deialdiari erantzunez, batzarrean 99 bazkidek hartu dute parte: erabiltzaileak, 59 (bertaratuak 49 eta delegatuak 10); laguntzaileak, 40 (bertaratuak 24 eta delegatuak 16). Orereta Ikastola Koop. E.-ak 1315 bazkide ditu guztira; %7,53ak hartu du parte, beraz, Batzar Nagusian.

	Etorritakoak	Delegatuak	Guztira
Bazkide erabiltzaileak (gurasoak)	49	10	59
Bazkide laguntzaileak (ez gurasoak)	24	16	40
	73	26	99

### **1.- Batzar-akta onesteko bi bazkideren izendapena.**

Gai-ordenako aztergaien hurrenkera aldatzeko proposamena egin du, eta onartu egin da.

Gai-zerrenda zehaztuta, aurtengo batzarreko akta onesteko proposatu diren bi bazkideen izenak eman ditu: Itxaso Pérez Barcenilla (NAN: 44561596Q) eta Iñaki Lorza Garcia (NAN: 44146001P). Batzarrak, aho batez, ontzat eman du bi bazkideen izendapena.

### **2.- Aurreko Urteko Ohiko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren berrespena.**

Bazkide guztiek izan dute akta eskuragarri, deialdia egin ostean. Akta hori Iraitz Burlada eta Leire Oliverik onartu zuten, bazkideen izenean, lehendakariarekin eta idazkariarekin batera.

Orain, onspen txostena berrestea eskatzen da. Bazkideek aldaketarik proposatu ez dutenez, bere horretan onartu da 2023 urteko batzarraren akta.

### **3.- Heziketaren kudeaketari buruzko txostenaren aurkezpena.**

Egoitz Verdugo zuzendari pedagogikoak heziketaren kudeaketari buruzko txostena aurkeztu du.

Kilometroak jaiari erreferentzia eginez hasi du hitzaldia. Aipatu du ekimen horrek balio izan duela Ikastolaren komunitatea indartzeko eta Ikastolaren herri eragile izaera adierazteko. Balio izan du, baita ere, herriari eskerrak emateko, urte hauetan guztietan Ikastolari eskaini dion babesagatik. Eta adierazi du hori guztia euskaratik eta euskaraz egin dela. Herriko gainontzeko kultura eta hizkuntzei irekita, euskara eta euskal kulturatik abiatuta.

Heziketaren kudeaketari dagokionez, Ikastolaren oinarrizko hezkuntza-ildoak hobetu eta garatzeko, honako erronka hauek ditugula adierazi du.

Erronkak:

- Gainerako ikastolekin batera sareko lana indartzen jarraitzea.
- Lidergoa eta ezagutza pedagogikoa indartzea.
- Harreman pertsonalak eta profesionalak erraztuko dituzten komunikazio-estrategiak areagotzea.
- Datozen urteetan profesionalen artean izango dugun belaunaldi-aldaketa bideratzea.
- Ebaluazio hezigarria egitea.
- Ikastolako partaide guztiek (irakasleek eta familiek) curriculum baliabide bat dela ulertzea.
- Ikastolaren barruko eta kanpoko espazioak eraldatzeko prozesuarekin jarraitzea.
- Hezkuntza proiektua modu sistematikoan ebaluatzen duen Ikastola izatea.
- Euskara erabiltzeko konpromisoa areagotzea.

- Proiektu eta metodologia guztiak sistematizatzea.
- Ikaskuntza eta garapen berritzailea sustatzea.

Erronka horiei aurre egiteko hainbat proiektu, programa eta ekimen ditu Ikastolak martxan, eta horiek guztiak hiru alderdi hauetan bildu daitezke:

1. Lidergo pedagogikoa eta pertsonen eraldaketa. Lidergoa orientatzeko iparra ikasleak izan behar dira. Ikasleen ikaskuntza prozesuak, sormenak, parte-hartze errealak eta ongizate emozionalak osatzen dute, beraz, hartzen ditugun erabakien eta martxan jartzen ditugun jardueren iparra.
2. Curriculum eta ebaluazioa. Alderdi honen xedea da Ikastolako hezkuntzaren kalitatea hobetu eta ikasleen aniztasunari ikuspuntu inklusibotik erantzutea.
3. Eskola inklusiboa, bizikidetza eta ongizatea. Bizikidetza positiboa, aniztasunari erantzutea eta ongizate emozionala eskola inklusiboaren esparruan funtsezko elementuak dira gure ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikorako.

Laburbilduz, Ikastolako hezkuntza proiektua eraldaketa prozesu batean sartuta dago bete-betean. Argi dugu eraldaketa horren erdigunean pertsona eredu jarri behar dugula. Pertsona eredu da familiekin dugun kontratua. Hori da Ikastolak ikaslearen motxilan sartu behar duena.

Bestalde, adierazle garrantzitsuenak ez badira ere, emaitza akademikoak zaindu beharreko adierazleak dira. Arlo horretan, urtero-urtero egiten du Ikastolak emaitza akademikoen balorazioa: ikas-arloka noten batezbestekoa, ikas-mailaz igarotzen diren ikasleen kopurua, titulazioa lortzen duten ikasleena, eta abar.

Eta emaitza onak mantentzen ditu Orereta Ikastolak, adierazi behar dugu: bai ikastolen artean, bai hezkuntza sistema osoaren artean goiko zatian kokatzen da, ikasleen emaitza akademikoei begiratu gero. Gauza bera esan daiteke Hezkuntza Sailak bideratzen dituen hainbat konpetentziatan oinarritutako kanpo ebaluazioez ere. Orereta Ikastola dagokion mailatik gora dagoela adierazten dute datuek. Hau da, Ikastolak balio erantsi bat ematen dio ikasleen ikasketa prozesuari. Emaitza horiek, beraz, eraldaketa pedagogikoaren alde egin den apustu sendoa indartu egiten dutela esan daiteke.

Aurrera begira, martxan diren ondorengo bi ekimenak aipatu ditu Egoitz Verdugok (Ikastolako zuzendari pedagogikoak):

- Gaitasun handiko eta errendimendu akademiko handiko ikasleentzako hezkuntza-arretari dagokion erantzuna indartzea.
- Ikastolara atzerritik heltzen diren ikasleen hizkuntza jabetze prozesua errazteko eta hezkuntza sisteman egokitasunez integratu ahal izateko bitartekoak indartzea.

Amaitzeko, Ikastolako hezkuntza komunitateak, eta bereziki hezitzaile taldeak, Orereta-Errenterian ikastola eredu indartzeko, eguneratzeko eta inoiz baino presenteago egoteko egiten duen lana goraiatu du.

Ondoren, Olatz Mitxelena Oiartzoko zuzendariak hartu du hitza.

Adierazi du Hautzaro, Orereta eta Oiartzoren arteko koordinazioa hobetzeko lanean jarraitzen dutela, eta, zentzu horretan, iaz abiatu zen Euskal Olinpiadak proiektua goraipatu du.

Hezkuntzari dagokionez, kalitatearen alde egiten den apustuaren adierazle gisa, honako hauek aipatu ditu:

- Batxilergoan orientatzailea izatea.
- USEko emaitzak. Selektibitateko eta batxilergoko emaitzen artean alde txikiena duen ikastetxeetako bat da Oiartzo Ikastola.
- LOMLOE egitura berria martxan jartzea.
- Oxford azterketa egiteko aukera izatea.

Etorkizunera begira, bi kontu hauek aipatu ditu:

- Batxilergo “orokorra” modalitate berria martxan jartzea. Aurten, oraindik ere erronka izango da, ez delako jakina %100ean zein bide izango duen.
- Eraikinen eraberritze-lanak. Teilatua eta igogailua egiten ari dira, baina beste hainbat obra iritsiko direla aurreikusten da.

#### **4.- Kilometroak 23 ekimenaren balorazioa.**

Itziar Navarrok Kilometroak ekimenaren balorazioa aurkeztu die bazkideei. Adierazi du balorazio hori aurrez Kilometroetako Batzorde Iraunkorrean landu dela. Horrez gain, Artezkaritza, Gipuzkoako Ikastolen Lurralde Batzar eta Udalarekin ere partekatu dela adierazi du.

Gaur bazkideei aurkezten zaie Kilometroak 23 Urteak eman duenaren emaitza, eta iragarri du Oarso aldizkarian ere artikulu bat argitaratuko dela horri buruz.

Hasteko, Udalaren jarrera ona nabarmendu du, eta komunikazioaren ikuspegitik lan garrantzitsua egin dela aipatu du. Oro har, egindako ekimenek oihartzun handia izan dute hedabideetan.

Erriola lelopean egindako Kilometroak jaiaren helburuak, sortutako lantalde eta batzordeak, egunak eta urteak emandakoak laburbildu ditu.

Horrez gain, emaitza ekonomikoen berri eman du. Emaitza orokorra: 220.738€ (-%20 EHIrentzat). Ikastolaretzat, beraz, 176.590 euroren bueltan geratuko dira.

Sarrera iturri nagusia Tanta zozketa-txartela izan da. Arropa ere iturri garrantzitsua izan da, eta Euskararen Erriok ere ekarpen handia egin du. Egunak berak etekin gutxi ematen du azken urteetan.

Ondorioetan eta hobetzekoetan, Gipuzkoako ikastola guztien artean hainbat gairen inguruan hausnarketa egin beharra aipatzen da: publizitate eta irabazi bideetan, arroparen eta markaren kudeaketan, Tanta zozketa-txartelaren salmentan dagoen desoreka eta Kilometroak Egunaren gastu-sarreraren inguruan.

Orereta Ikastolaren antolatze moduari dagokionez, hobetzekoak: batzordeen artean desoreka handia egon da. Batzorde batzuek lan karga handia izan dute; batzorde batzuk osatzea asko kostatu da (beste batzuk oso erraz sortu dira). Urte guztia presaka eta informazio urriarekin ibili izanaren sententzia egon da. Lidergo sendo baten falta izan da, eta koordinazioan ere zailtasunak izan ditugu (nahiz eta EHko bi pertsona zeuden lanaldi osoan; horiengandik gehiago espero zen eta haiek egin ez dutena etxe barrutik egin behar izan da).

Balorazio orokorra: Urtea ondo joan da, egin diren gauzak oso txukun egin dira eta oihartzun handi izan dute. Jende askok ordu asko sartu ditu, eta azkenean dena ondo atera bada izan da komunitateak egin duen lanagatik, konpromisoagatik eta gaitasunagatik.

Azkenik, Itziar Navarrok aipatu du hiru lantalde sortu direla lortutako etekinak nahi diren helburuetara nola bideratu erabakitzeke. Eta amaitzeko, urtearen laburpena egiten duen bideoa erakutsi du.

### **5.- Estatutuen aldaketa, hala badagokio, bikotekideari botoa eskuordetu ahal izateko (24. artikulua).**

Azken urteetan izan diren eskaerei erantzunez, Orereta Ikastola Koop. E-ren estatutu sozialetan aldaketa bat egitea proposatu zaio Batzar Nagusiari. Proposamena da, aurrerantzean, bazkideek beren bikotekidearen bitartez Batzar Nagusian ordezkatuak izateko aukera izatea botoa eskuordetuz. Bazkideen parte-hartzea handitzeko eta sustatzeko proposatzen da aldaketa hau.

Hala, estatutuetako 24. artikulua honela egokitzea proposatzen da:

<b>ARTIKULUA</b>	<b>GAUR EGUNGO TESTUA</b>	<b>PROPOSATURIKO TESTUA</b>
24. BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA	HIRU.- Batzar Nagusi bakoitzean, kasu berezietan, bazkideek beste bazkideren bat izenda dezakete euren ordezkari, horretarako prestatuturiko ordezkapen orri ofizialean. Batzar unibertsala denean, ordezkari itzazteko idazkian aurreikusitako Gai Zerrenda agertu beharko da. Ezein bazkidek ezin izango du, bereaz gain, beste bi ordezkari baina gehiago bere gain hartu. Ordezkari itzazte atzera bota daiteke; ordezkari Batzar Nagusira bertaraten bada, ordezkari bertan behera geratuko da.	HIRU.- Batzar Nagusi bakoitzean, bazkideek beste bazkideren bat edo bikotekidea (bikotekidetzat ulertuko da ezkontidea, egitateko bikotea edota Ikastolan ikasketak egiten dabilen seme-alabaren beste gurasoa) izenda dezakete euren ordezkari, horretarako prestatuturiko ordezkapen orri ofizialean. Batzar unibertsala denean, ordezkari itzazteko idazkian aurreikusitako Gai Zerrenda agertu beharko da. Ezein bazkidek ezin izango du, bereaz gain, beste bi ordezkari baina gehiago bere gain hartu. Ordezkari itzazte atzera bota daiteke; ordezkari Batzar Nagusira bertaraten bada, ordezkari bertan behera geratuko da.

#### **1. bozketa: Estatutuetako 24. artikulua aldatzea.**

Emaizak:	BAI	76,22
	EZ	0
	ZURI	0
	BALIOGABE	0
	GUZTIRA	76,22

Beraz, onartu egiten da estatutuen aldaketa.

## **6.- 2022-2023 ekitaldiko kudeaketa soziala eta urteko kontuen onarpena, hala badagokio. Emaizten aplikazioa.**

Anartz Muxikak, Orereta Ikastolako zuzendariak, 2022-2023 ikasturteko kontuak azaldu ditu. Lau ataletan banatu ditu kontuen inguruko gaiak:

1. Hezkuntza Sailaren aurrekontua eta finantziazioa.
2. 2022-23 ikasturteko Oiertzo eta Orereta Ikastoletako kontuen azalpena eta horien onarpenaren botaketa.
3. Sinatu berri den lan-hitzarmenaren AURREAKORDIOAren eragin ekonomikoa.
4. 2024-25 ikasturterako proposatzen diren tarifen azalpena eta horien botaketa.

2022-2023 ikasturteko kontuei dagokionez, galdu-irabazien kontuari eta balantzeari buruzko azalpenak eman ditu. Lehenengo, Oiertzori dagozkionak; eta ondoren, Orereta Ikastolari dagozkionak.

### OIARTZO:

Balantzeari dagokionez ez dago aldaketa esanguratsurik:

- a. Oiertzoko balantzea xumea da, eraikina bera Udalak lagata dago.
- b. Aktiboan dagoen gutxitzea Denborak dakarren balio galerak eragiten du.
- c. Leihoak aldatzeko inbertsiorako mailegu bat eskatu zen eta dagokion epeetan ordaintzen ari da Ikastola.
- d. Jarraipen sarien hornikuntza egitea erabaki da 35.000€ azaleratuz.
- e. Hezkuntza Sailak etapa hau erabat azpifinantziazuta duenez, galerak ematen ditu urtero eta diruzaintza arazoak ditu etengabe. Hautzaro eta Orereta Ikastolek beren ekarpenekin estaltzen dituzte galerak (Hautzarok, %25ean; eta Oreretak, %75ean).

Galdu-irabazien kontuaren ingurukoak: Aurreko ekitaldiko galerak 114.833 €-takoak izan ziren, eta 2022-23 ikasturtean 44.782€-takoak izan dira. Emaizta asko hobetu da, beraz, aztergai den azken ikasturtean.

Sarrerei dagokionez, honako hauek dira aipagarrienak:

- Inoizko ikasle gehien ditu Oiertzok. 7 lineatik 8 lineara igaro zen. Horrek sarrera-igoerak dakartza, bai kuota gehiago sartzen direlako, bai gela gehigarri bati lotutako dirulaguntza erdiesten delako.
- Bestetik, Oiertzok tarifak igo zituen beste urtebetez, kuota 86 €-tan finkatuz.

Gastuei dagokionez:

- Lan-hitzarmenean adostutako soldaten diferentzietan 19.024 € ordaindu ziren.
- Wifi antena eta firewall-en inbertsioak egin ziren (16.915 €).
- Lan-hitzarmenean jasota dagoen jarraipen sariei dagokionez, hurrengo urteetan ordaindu beharreko kopuruak 61.000 €-koak izatea estimatu da. Orain, horietatik 35.000 € hornitzea erabaki da, eta falta dena hurrengo urteetan hornitzea da asmoa.

2023-24 ikasturtean zer gertatu da? 8 lineatik 7 lineatara jaitsi da Oiartzo. Beraz, emaitzaren okertzea ekarriko du.

Eta 2024-25 ikasturtean 7 lineatik 6 lineatara jaitea aurreikusten da; beraz, hor ere emaitzaren okertzea helduko da. Galera horien arrazoia azpifinantziazioan dago, gastu-politika beste ikas-etapen berdina baita. Hezkuntza etapa guztiak defizitarioak dira eta horregatik ditu Ikastolak indarrean kuotak. Hala ere, Batxilergoa eta 0-2 etapa dira okerren finantzatuta daudenak, eta hori galeretan islatzen da.

#### ORERETA:

Balantzeari dagokionez:

1. Aktibo ibilgetu materialean ez dago inbertsio nabarmenik. Denborak dakarren balio-galerak eragiten du aktiboaren kopurua jaitea.
2. Hainbat zordunetan: batez ere Kilometroei aurreratutako kopuruak ditugu, eta likidazioan jaso gabe zeuden.
3. Pasiboari dagokionez, funts propioen igoera 2022-23ko ekitaldiko emaitzari lotutakoa da. Funts propioak 4 milioi € pasatxokoak dira, eta beraz, egoera finantzario indartsua du Ikastolak.
4. Maileguei dagokionez, 130.000 €-tan gutxitu du zorra Ikastolak.
5. Jarraipen sarien hornikuntza egitea erabaki da, Oiartzon bezala. Hala, Oreretan 110.726 € azaleratuko dira.

Jarraian adierazle finantzarioak azaltzen dira. Laburbilduz, adierazle oso egokiak eta egoera finantzario indartsua du Orereta Ikastolak.

Galdu-irabazien kontuari dagokionez:

Emaitzan aldeko eragina izan dute honako hauek:

1. Dirulaguntzek %3ko igoera izan dute aurreko ikasturtearekiko, KPIaren azpitik, hala ere.
2. Oiartzoko galerak gutxitu dira. Horien eragina, Orereta Ikastolak %75aren ardura duenez, 50.000 € ingurukoa da.

Kontrako eragina izan dutenak:

1. Arlo pedagogikoan inoiz baino baliabide gehiago jarri dira azken urteetan.
2. Lan-hitzarmenean adostutako soldaten diferentzietan, 30.000 € ordaindu ziren.
3. Ordezkapen asko izan dira gaixotasun asko izan direlako lankideen artean. 95.000 €-ko aurreikuspena zegoen egina, eta 146.000 €-koa izan da bukaeran.
4. Ikasle gutxiago dituenek Ikastolak eta kuota osagarria aspaldian izoztua dagoenez, kuota osagarriari dagozkion sarrerak gutxituz doaz.
5. Haur Eskolatik jaso den dirulaguntzak behera egin du, hor dagoen defizita handituz.
6. 2021eko eta 2022ko KPIaren batura %12koa da; eta 2023koa, %3,1koa.

Sail esanguratsuenei dagokionez:



- Jangelan, gastuen igoera nabarmena izan da elikagaietan, eta emaitzak okerrera egin du.

Ekitaldiko Ohiko emaitza -28.410 €-koa da.

Ez ohiko eragiketei dagokionean, esan:

1. Kilometroen etekin osoa ez da 2022-23 ekitaldiari dagokiona eta, beraz, hortik 150.000 €-ko hornikuntza gehitzea proposatzen da.
2. Lan-hitzarmenean jasoa dagoen jarraipen sariari lotutako 110.726 €-ko azaleratzea proposatzen da.

Beraz +10.864€-ko emaitza kontablera iristen da Orereta Ikastola.

Azalpen horiek emanda, bazkideei hitza hartzeko aukera eman zaie, eta bozketa egin da.

**2. bozketa: 2022-2023 ekitaldiko kudeaketa soziala eta kontuak onartzea (10,864 €); eta etekinak, COFIP (Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena)era %5eko ekarpena eginda, derrigorrezko funtsera eta borondatezko erreserbara bideratzea.**

Emaitzak:	BAI	71,77
	EZ	1,78
	ZURI	1,78
	BALIOGABE	0,89
	GUZTIRA	76,22

## **7.- Tarifak berrikusteko proposamena eta, halako badagokio, onarpena.**

Anartz Muxikak, Orereta Ikastolako zuzendariak, lehenik, testuingurua zein den aipatu du.

Zerbitzu osagarriei dagokionez, hainbat alderdi negatibo ditugu: KPIaren igoerak aurreikusitako emaitzak okertu ditu; elikagaiek igoera handia izan dute; lan-hitzarmenaren aurrekordioaren arabera, %9ko igoera orokorra izango da soldatetan. Irakasleen soldaten igoerak ez du eragin ekonomiko nabarmenik izango Hezkuntza Sailak finantzatzen dituelako; aldiz, finantzatuta ez dauden eta Ikastolak barneratuta dituen beste zerbitzuetan, eragina nabarmena izango da.

Horiek horrela, zerbitzuetako kuotak igo beharrean dago Ikastola. Igoerak proposatutakoa baino handiagoa beharko luke, baina Ikastolak esfortzuaren zati bat beste urtebetez beregain hartzea da proposamena.

Hori ulertzea garrantzitsua da. Izan ere, zera aurreikusten da: doakotasunerako pauso errealak egin ahala (Hezkuntzaren finantziazioa gehituko da), kuota osagarria jaitsi eta zerbitzuen kuotak asko igo beharko direla.

Testuinguru horretan, Artezkaritza Kontseiluak ondorengoa proposatzen du 2024-2025 ikasturteari begira:

- Bazkide kuota eta kuota osagarria izoztea (defizita ez dago hezkuntzan, baizik eta jangelan eta garraioan, batez ere).
- Zerbitzu osagarrietan, honako igoera hauek aplikatzea 2024-25 ikasturtean:

	Jangela	Garraioa (2 bidaia)	Garraioa (4 bidaia)	Eskola kirola	Txokoa
<b>Igoera (%)</b>	%6,25	%3,64	%4,11	%6,4	%8
<b>Igoera (€)</b>	0,4 €	2,0 €	3,0 €	1,0 €	2,0 €

	Jangela	Garraioa (2 bidaia)	Garraioa (4 bidaia)	Eskola kirola	Txokoa
<b>HH</b>	7,2 €				2,0 €
<b>LH</b>	7,2 €	2,0 €		1,0 €	2,0 €
<b>LH etxera</b>			3,0€	1,0 €	2,0 €
<b>DBH</b>		2,0 €			

Egun Ikastolak duen informazioarekin, hori da Artezkaritza Kontseiluaren proposamena. Urtero esaten den moduan, etorkizunean aldaketa nabarmena suposatuko lukeen informazioa iritsiko balitz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki hauek egokitzeko bidea irekia uzten da.

### 3. bozketa: 2024-2025 ikasturteko zerbitzu osagarrien zenbatekoaren igoera onartzea.

Eraitzak:	BAI	57,51
	EZ	12,46
	ZURI	3,27
	BALIOGABE	1,20
	GUZTIRA	74,44

Beraz, zerbitzu osagarrien tarifak igotzeko proposamena onartu da.

### 8.- Ikastolaren Linoko eraikineko obraren onarpena eta mailegua eskatzeko baimena, hala badagokio.

Egoitz Verdugok, Ikastolako zuzendari pedagogikoak, azaldu du Esmalteriako obra egin ondoren Linon ere obrak egitea zela asmoa, espazioak behar pedagogikoen zerbitzura egokitzeko. Baina proiektu hori atzeratuz joan da, tartean izan diren zenbait gorabeheraren ondorioz: beherakada demografikoa eta, ondorioz, matrikuletan izandako beherakada; COVID pandemia, krisia... Aurten, ordea, berriz ekin zaio Lino Berriaren proiektuari. Hala, proiektua berraztertu eta berregokitu da.

Ondoren, Anartz Muxikak, zuzendari nagusiak, azaldu ditu zein diren hurrengo pausoak Linoko eraikineko obrei dagokionez:

- Udaletxea eta bankuekin eman beharreko pausoak ematen ari da Ikastola eta pentsatu bezala doaz gauzak, hasiera batean.
- Arkitektoa egina zegoen proiektua egokitzen ari da.

- Arazoak hornitzaileekin ari da topatzen Ikastola. 2024ko uztaillean obra hasteko zailtasunak egon daitezkeela esaten zaio Ikastolari, profesional jakin batzuk lortzea ez baita erraza (iturginak...). Ikastolak lanean jarraituko du horretan eta baliabide guztiak jarriko ditu obra gehiago ez atzeratzeko. Aurtengo udan egitea lortuko ez balitz, datorrenean egingo litzateke.

Lehenengo erreferentzien arabera, Linoko obrari dagokionez, 1.400.000 euro inguruko kostua izango du. Bestalde, LHn eta DBHn egin beharreko egokitzapenak direla-eta, 450.000 euroko inbertsioak egin behar dira. Horretarako mailegua eskatuko da eta Hezkuntza Sailaren Hezkoop dirulaguntzetara ere aurkeztuko da Ikastola.

Hurrengo urteetan ibilgetuen amortizazioan beherakada handia izango da, eta 2025-26 ekitalditik aurrera amortizazio gastuak asko jaitea aurreikusten da. Hori dela eta, LINO-LH-DBHko lanek sortuko duten gastu gehikuntza estaltzeko abiapuntua egokia da. Amortizazioen bilakaera (inbertsio berriak kontuan izan gabe):

	Amortizazioa
2022-23	419.046 €
2023-24	416.946 €
2024-25	398.007 €
2025-26	271.021 €
2026-27	161.189 €

#### 4. bozketa:

- **Linoko eraikina eraberritzeko baimena eta LHko eta DBHko konpontze lanak egiteko aurrekontua onartzea.**
- **Lan horiek finantzatzeko maileguak eskatzeko eta hipoteka egiteko baimena ematea.**
- **Artezkaritza Kontseiluko diruzainari edo Ikastolako zuzendari gerenteari ahalordeak ematea, bietako edozeinek, mailegua eta hipotekak sina ditzan.**

Emaizak:	BAI	62,25
	EZ	5,05
	ZURI	7,14
	BALIOGABE	0
	GUZTIRA	74,44

#### 9.- Egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia.

Itziar Navarro lehendakariak egungo egoeraz eta etorkizunaz Ikastolak duen ikuspegia azaldu du.

Ikasturte berezia izan da 2022-23a Ikastolako ikasle, familia eta langileentzat, kilometroei lotuta, urte osoan zehar hamaika ekimen egin direlako. Eta, gainera, Ikastolako ohiko jarduna alde batera utzi gabe.

Gaur egungo egoeratik abiatuta, etorkizuna nola irudikatzen den aipatu du Itziar Navarrok. Eta itxuraz, datozen urteak ez dira errazak izango.

Demografiaren bilakaerak ez du batere laguntzen: arazoa orokorra da, Euskadi erkidego osoan hainbat eta hainbat gela galduko dira, gauzak aldatzen ez badira. Herriko jaiotza-tasaren beherakada handiaren ondorioak sufritzen ari da Ikastola azken urte hauetan. Eta kopurua ez ezik, jaiotza-tasa horren osaera ere aldatzen ari da. Zehazki, bertako jatorriko familien seme-alabak proportzioan gutxiago dira eta atzerriko jatorriko familienak lehen baino gehiago dira. Eta horiek, orain arte behintzat, ez dira Ikastolara hainbeste hurbiltzen, nahiz eta matrikulazioan Ikastola izaten ari den jatorri atzerriarreko familien seme-alabaren batzuk, Ikastolara beren borondatez etorri direnak. Bilakaera horrek Ikastola bere ohiko merkatu kuotaren azpitik uzten du. Matrikulazio kanpaina amaitu (otsailean) eta ikasturtea hasi bitartean (iraila), bere ohiko merkatu kuotara heldu da Ikastola azken urteetan matrikula bizirik, epe kanpoko matrikuletatik... etortzen diren hurrekin.

Aurtengo matrikulazio kanpaina itxi berritan, datorren ikasturterako, 2 urteko geletan 43 ikasle izango dira Ikastolan; iazko matrikulazio kanpainako emaitza berbera haur kopuruari dagokionez. Esan bezala, nahiz egia izan gero urtean zehar beste ikasle batzuk ere iristen direla Ikastolara, abiapuntu horrekin, gelak galtzen joango da Ikastola. Eta Ikastolaren dimentsioa egokitu egin beharko da. Hori da datozen urteetarako datorrena: orain arteko joerek bide beretik jarraitzen badute, Ikastola txikitzen joango da, horrek esan nahi duen guztiarekin, bereziki, langileei begira. Gogor egin beharko da lan ikasleak Ikastolara erakartzeko eta, horrekin batera, langileen egoera ahalik eta ongien kudeatzeko, besteak beste, erretiroez baliatuta.

Ikusteke dago, baita ere, zer gertatzen den ikasle zaugarrien banaketarekin. Iaz Ikastolan eskolaratzea eskatu zuten ikasle guztiak hartu ahal izan zituen Ikastolak. Horixe zen Ikastolaren kezka nagusia: tokia izanda, Ikastolara etorri nahi zuten familiak kanpoan gelditzea. Ea aurten ere horrela izaten den.

Bestalde, ikasturte honetan ere, jatorri atzerriarreko familietako ikasle gehiago etorri dira Ikastolara urtean zehar. Urte batzuetan, ikasturtean zehar iristen ziren familietako ikasle bakarra ere ez zuen bideratzen Eskolatze Batzordeak Ikastolara. Hori, zorionez, aldatu da. Ikastolarentzat erronka berria eta handia bada ere, zalantzarik gabe, gizartearen isla ere bada. Beraz, ikuspegi horretatik, pozgarria da. Denok jarri behar dugu gure alea ikasle horiek integratzeko eta gurean gustura sentitzeko. Eta eskertzekoa da familia horiek Ikastolara iristen diren momentutik haiekin harremanetan dauden profesional guztiek egiten duten lana: ikasleak eta familiak gustura daude Ikastolak eskaintzen dienarekin. Eta horrela onartu dute orain dela aste batzuk haiekin egin den topaketan. Oso eskertuta daude Ikastolan egin zaien harrerarekin eta, aita batek esan zuen bezala, pertsona bezala tratatu dituelako Ikastolak. Gainera, hobetzeko hainbat bide ere iradoki dizkiote Ikastolari, oso kontuan hartzekoak. Ikastolako profesionalentzat ez ezik, Ikastolako familientzat ere bada etxeko lanik eta horretan ere ari da Ikastola pauso txiki batzuk ematen, guztien ardura baita ikasle hauek eta familiak Ikastolara ahalik eta ongien egokitzea.

Ikasle gutxiago ditu Ikastolak, baina aniztasuna handitzen ari da, eta ez jatorriari begiratuta bakarrik. Eta orain arte egindakoaren bidetik, aniztasun horri erantzuten asmatu behar da, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora, Ikastolara iristen den haur bakoitzari bere gaitasunak garatzen laguntzeko. Pauso sendoak eman dira bide horretan, eta gehiago ere eman beharko dira.

Hori guztia Lege berri baten pean egingo da. Izan ere, joan den abenduan onartu zen, azkenean, EAEko Hezkuntza Legea, azken hilabete luzez guztien ahotan izan dena. Ikastolok ilusioz hartu genuen alderdiek adostu zuten aurreakordioa, baina Legearen azken bertsiok ez gaitu guztiz asebetetzen: Ikastolen Elkarteak egin duen balorazioarekin bat, euskal hezkuntza sistema propio eta berri bat egituratzeko aukera galdu izanaren sententzioarekin gelditzen gara.

Ikastolak kritikoak gara EAEko Hezkuntza Lege berri honekin, hainbat arrazoiengatik:

- Alde batetik, Legeak ez dio euskarari behar duen tokia ematen: hasieran bestela bazirudien ere, hezkuntza ereduari eutsi egin zaie eta ez da murgiltze eredu orokortzearen aldeko apusturik egin; aitzitik, hezkuntza guztiak izan daitezke irakas-hezkuntza; eta hori ikusirik, zaila da sinestea ikasle guztien euskalduntzea bermatuko denik.
- Bestalde, Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa aipatzen da, baina ez dira zehaztasunez definitzen zerbitzu horren parte izango diren ikastetxeen betebeharrak eta horrek publiko-pribatu dikotomia “betikotzeko” arriskua dakar.
- Horretaz gainera, aurrekontuak eta baliabideak ere ez daude zehaztuta eta, hori gabe, ezinezkoa da familiek ordaintzen dituzten kuotak kentzea. Jaurlaritzak diruz lagundutako partidengatik ez da ezer ordaindu behar izango, baina nahiz eta egia den Hezkuntza Saitetik iristen den finantzaketa handitzen ari dela, atal batzuk estali gabe geldituko dira.
- Eta, azkenik, Legeak ez du Euskal Herria bere osotasunean hartzen eta euskal curriculumak ez da oinarritzat hartzen, eta hori Ikastolen mugimenduarentzat garrantzitsua da.

Egoera berri horri erantzuteko, ezinbestekoa da elkarrekin gogoeta egitea. Horixe du helburu, hain zuzen ere, hainbeste atzeratu den Ikastolen VII. Batzarra. Behin baino gehiagotan esan da prozesu hori bazetorrela, eta orain bai, orain data zehatzak eta bukaera jarrita ditu.

Hain zuzen ere, astelehen honetan (2024ko otsailaren 26an) aurkeztu da Albaolan (Pasaia), ekainaren 22ra arte luzatuko den prozesua. Egun horretan egingo da Euskal Herriko Ikastolen VII. Batzarra. Bertan, hurrengo zortzi-hamar urteetan ikastolen mugimenduak egingo dituen urratsak eta ezarriko dituen mugarriak erabakiko dira, jakinik euskararen biziberritzerako eta hezkuntzaren eraldaketarako ikastolen ekarpena, oraindik ere, ezinbestekoa dela.

2009an egin zen ikastolen azken batzarra eta jendarteak aldatu egin da, baita ikastolek hartzen duten tokia ere. Eta jendarte berri horretan nola kokatu pentsatu behar da.

## **10.- Artezkaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kide berrien onarpena, hala badagokio.**

Itziar Navarro lehendakariak Artezkaritzan izango diren aldaketan berri eman du. Sei aldaketa proposatu dira. Artezkaritza utziko dute: Itziar Navarro, Xabier Zabaleta eta Arantza Irigorri gurasoek; Lourdes Saez de Eguilaz, Iñaki Zapirain eta Sara Aramendi langile-ordezkariek.

Horien lekuan beste sei lagun sartuko dira Artezkaritza taldera: Lorea Álvarez, Joseba Agudo eta Mainer Ubarretxena gurasoak; Begoña Zuloaga, Imanol Mitxelena eta Iker Goñi langile-ordezkariek.

Lehendakariak azpimarratu du Artezkaritza Kontseilua osatzen duten guztiak ahaleginduko direla Ikastolaren oraina kudeatzen eta etorkizuna bideratzen, ahalik eta txukunen.

Hala, hauxe izango litzateke Artezkaritza Kontseiluko talde berria:

<b>Artezkaritza Kontseiluaren osaera</b>	
Xabier Gorratxategi Zipitria	
Francisco Javier Bagües Bafaluy	
Ane Igarzabal San Sebastián	
Mertxe Arano Izquierdo	
Lide Gabarain Torrecilla	
Izaskun Aldezabal Roteta	
Lorea Álvarez Gerriko	
Joseba Agudo Mancisidor	
Mainer Ubarretxena Bengoetxea	
<b>Langileen ordezkariek</b>	
TITULARRAK	ORDEZKOAK
Mari Jose Iraola Borges	Ainara Jacinto Etxenagusia
Imanol Mitxelena Lizaso	Ane Beltrán Errandonea
Iker Goñi Ramírez	
Begoña Zuloaga Elicegui	Oihana Olazabal Deobarro

Zaintza Batzordean ez dago aldaketarik.

<b>Zaintza Batzordea (2026ra arte izendatuak)</b>
TITULARRAK
Ainhoa Arruabarrena Elorza
Agurne Etxebeste Huarte
Arantxa Iraola Alkorta
Maite Intziarte Jauregi (langile ordezkariek)

Jarraian, Artezkaritza Kontseiluaren osaera berria onartzeko bozketa egin da.

## 5. bozketa: Artezkaritza kontseilua berritzea.

Emaitzak:	BAI	70,88
	EZ	0
	ZURI	1,78
	BALIOGABE	0
	GUZTIRA	72,66

Artezkaritza barruko karguak eta ardurak banatzea Artezkaritzari berari dagokio. Hala ere, modu informatiboan hurrengo lehendakaria Xabier Gorrotxategi izango dela aurreratu du Itziar Navarrok.

Xabier Gorrotxategik hitza hartu du eta adierazi du ilusioz eta arduraz hartzen duela kargua. Eskerrak eman dizkio Itziarri urte hauetan Ikastolaren alde egindako lan guztiagatik, eta lore-sorta bat eman dio.

## 11. Galde-eskeak.

Ez da galde-eskerik egon.


Itxaso Pérez Barcenilla  
NAN: 44.561.596-Q  
Bazkide aukeratua




Iñaki Lorza Garcia  
NAN: 44.146.001-P  
Bazkide aukeratua



Xabier Zabaleta Etxabe  
NAN: 34.093.984-A  
Idazkaria



Itziar Navarro Pikabea  
NAN: 34.099.745-Z  
Lehendakaria



Orereta-Erreterian, 2024ko otsailaren 28an sinatzen dute batzarrak aukeratutako bi bazkideek akta, idazkariarekin batera eta lehendakariaren oniritziarekin, batzarra bukatu ostean.